

SAMSUNG GALAXY FOLD

Samsung Galaxy Fold bat erosi nuen nire telefono konpainiari kuotetan ordaintzeko. Iritsi zenean konturatu nintzen ez zitzaidala gustatzen, beraz, itzuli egin nuen eta beste modelo bat erosi nuen.

Arazoa izan zen nire operadoreak itzuli nuen telefonoaren kuotak kobratzen jarraitu zuela, aparatu berriarenaz gain. Erreklamatu nuen eta esan zidaten aparatua iritsi zitzaiela, baina marraduna zegoela, eta kuotak ordaintzen jarraitu behar nuela. 1.798 euroz ari ginen!!

Erreklamazio bat aurkeztu nuen Kontsumo Bulegoan eta nire konpainiak erosketa baliogabetzea erabaki zuen. Ordaindutako kuotak itzuli zizkidaten eta ez zidaten besterik kobratu. Ezin nuen sinetsi. Oso eskertuta nengoen eta Kontsumo Bulegoko neskei bi bonboi kaxa eraman nizkien.